EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP)

BARAKALDOKO UDALA

2020 – 2024

PLAN DE ACCIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA

AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

2020 – 2024

AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. Sarrera
Introducción..... 3

I.- Ingurune juridikoa
Contexto jurídico ……..…….....……..... 6
1. **Arautegi orokorra**
Normativa general 7
2. **Barakaldoko Udalak hartutako erabaki eta neurriak**
Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayto. de Barakaldo 9

II.- Diagnosia
Diagnóstico ……..…….....……..... 11
1. **Metodologia**
Metodología ……..…….....……..... 12
2. **Datu kuantitatiboak**
Datos cuantitativos 13
3. **Balorazio kualitatiboa**
Valoración cualitativa 19

III.- 2020-2024 ESEP Plan estrategikoa
Plan estratégico ESEP 2020-2024 ……. 25
1. **Eragin eremua**
Ámbito de aplicación 26
2. **Eragin epea**
Período de vigencia ……..…….....……..... 26
3. **Xede Nagusia**
Objetivo principal ……..…….....……..... 26
4. **Helburu estrategikoak**
Objetivos estratégicos ……..…….....……..... 26
5. **Antolakuntza egitura**
Estructura organizativa ……..…….....……..... 26
6. **Baliabideak**
Recursos ……..…….....……..... 27

IV.- Ardatzak, ekintzak, adierazleak eta kronograma
Ejes, actuaciones, indicadores y cronograma ……..…….....…… 29
1. **Planaren ardatzak**
Ejes del plan ……..…….....……..... 30
2. **Helburuak, ekintzak eta adierazleak**
Objetivos, actuaciones e indicadores ……..…….....……..... 32

V.- ESEP planaren diseinuan parte hartu dutenak
Participantes en el diseño del plan ESEP ……..…….....…… 38

SARRERA

Euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Hala, euskal herritar orok du eskubidea euskara jakiteko eta edozein esparrutan hizkuntza hau erabiltzeko. Euskal gizarteak irmo aldarrikatu du gizarte elebiduna izan nahi duela; horrenbestez, herri administrazioen betebeharra da herritarrei nahi duten hizkuntza ofizialean aritzeko eta bizitzeko eskubidea bermatzea.

Hori dela eta, elebitasun orekatu batera iristeko asmotan, Barakaldoko Udalak hizkuntza politika definitu eta sustapen politika hori garatzeko baliabideak jarriko ditu. Halaber, euskararen erabileraren aldeko konpromisoa, sentsibilizazioa eta eredugarritasuna landuko du.

Horretarako, Barakaldoko Udalak 2020-2024 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (txostenean zehar ESEP) diseinatzeko prozesua ireki du 2019. urtean.

Plan honen helburu nagusia gure udalerrian datozen urteetan euskararen ezagutza bermatu eta sendotzearekin batera, euskararen erabilera sustatzea da, hau da, aurrerapausoak ematea ezagutza eta erabileraren artean dagoen jauzia gutxitzeko.

Plan honen diseinuan Barakaldoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren “Euskara 21. itun berri baterantz” dokumentuaren printzipio nagusiekin bat eginda, hizkuntza politika inklusiboa bultzatu nahi luke:

- **Adostasunean oinarritutako hizkuntza politika**

  Bi hizkuntza ofizial izateak ez du bermatzen bi hizkuntzen arteko

INTRODUCCIÓN

Siendo el euskera lengua propia de nuestro pueblo y, junto con el castellano, lengua oficial en toda la Comunidad Autónoma Vasca, toda la ciudadanía goza del derecho a conocer y utilizar el euskera en cualquier ámbito. La sociedad vasca ha reivindicado, sin ambages, una sociedad bilingüe, de ahí que las administraciones locales tengamos la obligación de garantizar a toda la ciudadanía el derecho a vivir y comunicarse en la lengua oficial que libremente elijan.

Con la intención de avanzar en pos de un bilingüismo equilibrado, el Ayuntamiento de Barakaldo definirá su política lingüística y pondrá los medios necesarios para desarrollarla. Asimismo, adoptará un modelo de compromiso, sensibilización y ejemplaridad en favor del euskera.

Con dicho fin, a lo largo de 2019 el Ayuntamiento de Barakaldo ha iniciado el proceso de diseño del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (en adelante, ESEP) para el período 2020-2024.

Este plan tiene como objetivo principal seguir reforzando y garantizando el conocimiento del euskera en nuestro municipio, al tiempo que se fomenta su uso, con objeto de reducir la brecha que existe entre los datos de conocimiento de la lengua y los de uso de la misma.

En el diseño de este plan el Ayuntamiento de Barakaldo, siguiendo los principios generales del documento “Euskara 21, hacia un pacto renovado” de Gobierno Vasco, quiere impulsar una política lingüística inclusiva:

- **Una política lingüística basada en el consenso**

  El hecho de que existan dos lenguas oficiales no garantiza en modo alguno

berdintasun-egoera berbera izatea. Gure gizartean aukera-berdintasunerantz urrats sendoak eman ahal izateko, ezinbestekoa da adostasunez jokatzea, hain zuzen ere, adostasun politiko eta sozial zabal batez jokatzea. Euskararen aldeko politika positibo eta eraginkorra eragile politiko eta sozialen eta, azken batean, herritarren atxikimenduaz bakarrik eraman daiteke aurrera.

una situación de igualdad entre ambas. Para avanzar con paso firme en favor de una igualdad de oportunidades en nuestra sociedad es esencial apelar al consenso y concretamente, conseguir un clima de amplio consenso social y político. De hecho, solo se conseguirá sacar adelante una política lingüística positiva y eficaz en favor del euskera si se cuenta con la adhesión de los agentes sociales y políticos y, en definitiva, de toda la ciudadanía.

- **Atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen hizkuntza politika**

  Hizkuntza politika eraginkorra izango bada, gizartearen errealitatea hartu behar du aintzat. Eta gizartearen atxikimendua zutoin hartuta, helburu egingarriak ezarri behar ditu, erori gabe ez gehiegikeria antzuetan, ez gutxiegikeria arduragabeetan ere. Alegia, aurrerapena ziurtatzen duten eta egingarri diren helburuak behar ditugu.

- **Una política lingüística factible, con ritmos adecuados y que cuente con la adhesión ciudadana**

  Solo conseguiremos una política lingüística eficaz teniendo en cuenta la realidad social. Y, sobre la base del apoyo social, deben marcarse objetivos factibles, sin incurrir en excesos estériles, ni en insuficiencias irresponsables. Necesitamos objetivos factibles, a un ritmo adecuado, que aseguren el avance en materia de normalización.

- **Herritar guztiei zuzendutako hizkuntza politika**

  Hizkuntza politikak era guztietako identitate adskripzioetara zabalik egon behar du, alegia, euskal herritar guztiak, edozein ikusmolde, ideologia, pentsaera nahiz adskripziotakoak direla ere, eroso sentitu behar dira euskararekin.

  Euskara herritar guztien ondarea da, eta herritar guztiei dagokie, euskal hiztunei ez ezik, erdal elebakarrei ere, hizkuntza politika finkatzea eta adostea.

  Horregatik, inork ez du bere burua baztertu behar eta inor ez dugu baztertu behar langintza honetatik, etorkizunari begira herritarron

- **Una política lingüística dirigida a toda la ciudadanía**

  La lengua ha de estar abierta a todo tipo de adscripción identitaria, necesita un sistema que garantice que toda la ciudadanía vasca, sea cual sea la visión, ideología, pensamiento o adscripción de cada cual, se sienta cómodo con el euskera.

  El euskera es patrimonio de toda la ciudadanía vasca, y a toda ella atañe, tanto a las personas vascohablantes, como a las castellanohablantes monolingües, fijar y consensuar la política lingüística.

  Por ello, nadie debe mantenerse al margen, ni tampoco se debe dejar a nadie al margen de esta tarea, puesto que, mediante la revitalización del

bizikidetza eta kohesio soziala sendotzen ari baikara euskara biziberritzearekin batera.

Hori guztia aintzat hartuta, plan hau diseinatu ahal izateko, ezinbestekoa izan da herriko sektore desberdinetako eragileen parte-hartzea. Alde horretatik, eskerrak eman behar zaizkie agertu duten konpromiso eta atxikimenduagatik eta plana aurrera ateratzeko egin duten lanagatik. Haien laguntzarik gabe, ez zen posible izango.

euskera, estamos reforzando la convivencia ciudadana y la cohesión social de cara al futuro.

Teniendo todo lo anteriormente referido en consideración, para la elaboración del presente plan ha sido imprescindible la participación de agentes de diferentes sectores del municipio, agentes a quienes debemos agradecer el compromiso y adhesión mostrados, así como el trabajo realizado para sacar adelante el plan. No habría sido posible sin su colaboración.

I.- INGURUNE JURIDIKOA

I.- CONTEXTO JURÍDICO

1.- Arautegi orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak ***Euskararen Erabilera arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea***n dauka bere lehendabiziko erreferentzia. Izan ere, euskal herritar guztiei hizkuntza ofizial biak ahoz zein idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortu eta herri-aginteen ezartzen zaie hizkuntza eskubide hauek bermatzeko betebeharra.

2003ko abenduaren 23an onetsitako Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, hala jasotzen du bere Zioen azalpenean:

«*…euskara babestu eta normalizatzeko lana, Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik, euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean, non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratua eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz. Hala, lege honek, zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea, aldezten du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea. Era berean, modu berariazko,*

1.- Normativa general

La política de promoción del uso del euskera de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca se enmarca dentro de lo establecido por la ***Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskera, de 24 de noviembre de 1982***, la cual reconoce a toda la ciudadanía del País Vasco el derecho a conocer y usas las dos lenguas oficiales, tanto oralmente como por escrito, y al mismo tiempo, obliga a los poderes públicos a garantizar el ejercicio de estos derechos.

El Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, de 23 de diciembre de 2003, así como el Decreto sobre derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, de 1 de julio de 2008, reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su Exposición de motivos, recoge

"…si bien la preservación y normalización del euskera, la lengua propia y común de Euskal Herria, es una tarea que les corresponde en primer lugar a todos los poderes públicos vascos, los municipios vascos deben ser precursores en esta labor. Y, en consecuencia, esta ley pretende ser pionera en un proceso en el que todos los poderes públicos apuesten aún más decididamente por el euskera, removiendo los obstáculos que impidan o dificulten su deseada normalización y su pleno desarrollo. Así, esta ley, siempre respetuosa con la autonomía local, favorece, si así lo decide la entidad local correspondiente, que el euskera pueda ser la lengua de trabajo de dicha entidad. Del

funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai "ad extra", hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai "ad intra", hau da, toki-erakundean bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.

Alabaina, hori esan ondoren, adierazi behar da ere, alde batetik, euskal toki-administrazioaren euskalduntzearen aldeko apustu irmo horrek ezin dituela inola ere ahaztu herritarren hizkuntza-eskubideak, herritarrek uneoro izango baitute hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea eta bi hizkuntza ofizialetakoren bat ez jakiteagatik inolako babesgabetasunik ez nozitzeko eskubidea. Eta beste alde batetik, toki-agintarien jardunak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan –karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan ondoren–, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen «hizkuntza erregionalen edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzatzat».

mismo modo, prevé de manera expresa, clave y directa que los municipios tengan competencias sobre el euskera, en materia de planes de uso y normalización lingüística tanto ad extra, esto es, para su ámbito de actuación territorial, como ad intra, es decir, para su articulación en la propia entidad local con los destinatarios que cada organización determine.

(…) Ahora bien, dicho esto, hay que manifestar también, por un lado, que esta apuesta decidida a favor de la euskaldunización de la Administración local vasca no puede desconocer en ningún caso los derechos lingüísticos de la ciudadanía, que en todo momento tendrá el derecho a ser atendida en la lengua oficial de su elección y a no sufrir indefensión alguna por el desconocimiento de alguna de las dos lenguas oficiales. Y, por otro lado, que la actuación de las autoridades locales exigirá medidas especiales en pro del euskera, que es la lengua oficial cuya situación es más precaria. De hecho, el favorecimiento del euskera busca precisamente promover la igualdad real entre la ciudadanía, en el sentido de lo contemplado en el apartado 7.2 de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992 y en vigor en nuestro ordenamiento jurídico tras su ratificación el 2 de febrero de 2001, cuando afirma entre sus objetivos y principios, que «la adopción de medidas especiales a favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinadas a promover una igualdad entre los hablantes de dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación con los habitantes de las lenguas más extendidas».

2.- Barakaldoko Udalak euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko hartutako erabaki eta neurriak.

Barakaldoko Udalak euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko hainbat erabaki eta neurri hartu ditu:

2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraikiz, Barakaldoko Udalak 2009ko abenduaren 30ean egindako 30/2009 zenbakiko bilkura arruntean IV. Plangintzaldiari zegokion ***Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa (2008-2012)*** onetsi zuen.

2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua oinarri hartuta eta aurreko planari jarraipena emateko, Barakaldoko Udalak 2013ko urtarrilaren 31n egindako 1/2013 zenbakiko bilkura arruntean ***Barakaldoko Udalaren V. Plangintzaldirako (2013-2017) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa*** onetsi zuen.

2.3. Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea oinarri hartuta, Barakaldoko Udalak 2014ko abenduaren 26an egindako 26/2014 zenbakiko bilkura arruntean ***Barakaldoko Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2015-2019)*** onetsi zuen.

2.4. 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua zein Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aintzat hartuta, Barakaldoko Udalak 2018ko

2.- Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayuntamiento de Barakaldo en materia de normalización y fomento del euskera.

El Ayuntamiento de Barakaldo, en materia de normalización y fomento del euskera, ha adoptado una serie de acuerdos y medidas:

2.1. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 30/2009, celebrada el 30 de diciembre de 2009, aprobó el ***Plan Estratégico de Normalización del Uso del euskera del Ayuntamiento de Barakaldo*** correspondiente al IV período de planificación (2008-2012).

2.2. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca y como continuación del plan anterior, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 1/2013, celebrada el 31 de enero de 2013, aprobó el ***Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo para el V período de planificación (2013-2017)***.

2.3. En base a la Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskera, de 24 de noviembre de 1982, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 26/2014, celebrada el 26 de diciembre de 2014, aprobó el **Plan de Acción para la Promoción del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo (2015-2019)**.

2.4. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril de 1997, así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el Ayuntamiento de Barakaldo en

uztailaren 26an egindako 14/2018 zenbakiko bilkura arruntean ***VI. Plangintzaldiari (2018-2022) dagokion Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa*** onetsi zuen.

2.5. Oraingo honetan, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aintzat hartuta, ***Barakaldoko Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2024)*** aurkezten da.

la sesión plenaria 14/2018, celebrada el 26 de julio de 2018, aprobó el ***Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo para el VI período de planificación (2018-2022)***

2.5. Mediante el presente documento, en base a la Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskera, de 24 de noviembre de 1982 así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se presenta para su aprobación el **Plan de Acción para la Promoción del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo (2020-2024).**

II.- DIAGNOSIA

II.- DIAGNÓSTICO

1.- Metodologia

Barakaldoko Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatu du 2015-2019 epealdian. Behin planaren indarraldia amaituta, Plan Estrategiko horren ebaluazioa eta diagnostikoa osatzeko hausnarketa prozesu bat antolatu da, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzaren laguntzaz.

Hausnarketa eta eztabaida prozesu horretan, egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu, euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak zein izan daitezkeen irudikatu, eta 2020-2025 ESEP plangintzarako helburu estrategikoak eta lan-ildo nagusiak zehaztu dira.

Antolatutako saioetan atera diren emaitzek Barakaldoko 2015-2019 ESEP plangintzaldian zehaztutako bisioa izan dute oinarri. Halaber, horrekin lotura eta harreman zuzena edo zeharkakoa izan duten egitasmoak, jarduerak, dinamikak, antolakuntzak… aztertu, hausnartu eta etorkizuneko lerro nagusiak definitzen jardun dugu.

Diagnosi hau sortzeko, ezinbestekoak izan dira Euskararen Aholku Batzordearen, udalerriko erakunde eta elkarteen ordezkarien eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa, hori dela-eta, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu, era batera edo bestera, prozesuan zehar parte hartu duten guztiei.

Hausnarketa prozesua 2019ko urrian eta azaroan zehar egindako 3 hausnarketa saioren bitartez egin da.

1.- Metodología

El Ayuntamiento de Barakaldo ha desarrollado el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) en el período 2015-2019. Una vez finalizada la vigencia del plan, se ha organizado un proceso participativo, con el asesoramiento lingüístico de Ahize-AEK, con el fin de evaluar el citado plan.

En el referido proceso de reflexión se han visualizado los objetivos actuales y de futuro; se han determinado las labores de coordinación y colaboración necesarias para impulsar la normalización del euskera y asimismo, se han precisado las líneas de trabajo y objetivos estratégicos que habrán de marcarse en el plan ESEP 2020-2025.

Las conclusiones extraídas del proceso participativo han tenido como base la visión definida en el plan ESEP 2015-2019. Igualmente se han analizado las actividades, dinámicas, proyectos… que directa o indirectamente han tenido relación con el citado plan, y finalmente se han definido las principales líneas a seguir en el futuro.

Para la confección del presente diagnóstico ha sido imprescindible la implicación y participación del Consejo Asesor del Euskera, representantes de asociaciones y entidades del municipio, así como de la ciudadanía en general. Es por ello, que mediante el presente documento se les quiere agradecer su labor.

El proceso participativo se ha realizado mediante 3 sesiones de trabajo realizadas entre los meses de octubre y noviembre de 2019.

2.- Datu kuantitatiboak

2020-2024 ESEP planaren nondik norakoak definitzen hasi aurretik, Barakaldoko egoera soziolinguistikoa zein den hausnartzea komeni da:

Euskararen ezagutza datuak (Eustat)

2.- Datos cuantitativos

Antes de comenzar a definir las líneas que marcarán el plan ESEP 2020-2024, es necesario reflexionar en torno a los datos sociolingüísticos de nuestro municipio:

Datos conocimiento de la lengua (Eustat)

	BARAKALDO							
	2001		2006		2011		2016	
Euskaldunak	9059	9,76%	17.214	18,27%	17.679	18,28%	24.307	25,26%
Elebidun hartzaile	22.799	24,57%	20.631	21,90%	27.689	28,64%	20.174	20,96%
Erdaldunak	60.930	65,67%	56.352	59,82%	51.326	53,08%	51.754	53,78%







Barakaldoko euskaldunaren profila:

- Euskara etxetik kanpo ikasi du, bigarren hizkuntza gisa.
- Gaztea da, 40 urtetik beherakoa.
- Gaztelania euskara baino gehiago eta erraztasun handiagoz erabiltzen du.

Datu esanguratsuak:

- 1981ean – 1.473 euskaldun Barakaldon
- 2016an – 24.307 euskaldun Barakaldon
  - (Barakaldo) – % 25,26 euskaldun
  - (Bilbo) – % 28,98 euskaldun
  - (Bilbo Handia) – % 30,12 euskaldun

Perfil del euskaldun barakaldés:

- Ha aprendido euskera fuera de casa, como segunda lengua.
- Persona joven, menor de 40 años.
- Utiliza más el castellano que el euskera y con mayor fluidez.

Datos remarcables:

- 1981 – 1.473 euskaldunes (Barakaldo)
- 2016 – 24.307 euskaldunes (Barakaldo)
  - (Barakaldo) - 25,26% euskaldun
  - (Bilbao) - 28,98% euskaldun
  - (Gran Bilbao) – 30,12% euskaldun

Euskararen jabekuntza datuak (Eustat)

Datos adquisición de la lengua (Eustat)

	BARAKALDO							
	2001		2006		2011		2016	
Euskara	842	0,91%	1.496	1,60%	1.819	1,90%	1.994	2,11%
Gaztelania	90.495	98,02%	90.582	96,77%	91.667	95,85%	89.464	94,68%
Biak	984	1,07%	1.532	1,64%	2.147	2,25%	3.030	3,21%







Datu esanguratsuak:

- 2001ean – 1.826 barakaldarrei transmititu zitzaien euskara etxean
- 2016an – 5.024 barakaldarrei transmititu zaie euskara etxean
  - (Barakaldo) - % 5,32
  - (Bilbo) - % 10,18
  - (Bilbo Handia) - % 10,63

Datos remarcables:

- 2001 – A 1.826 barakaldeses se les ha transmitido el euskara en casa
- 2016an – A 5.024 barakaldeses se les ha transmitido el euskara en casa
  - (Barakaldo) - 5,32%
  - (Bilbo) - 10,18%
  - (Gran Bilbao) - 10,63%

Euskararen erabilera familia esparruan (Eustat)

Datos uso del euskera en el ámbito familiar (Eustat)

	BARAKALDO							
	2001		2006		2011		2016	
Euskara	312	0,33%	682	0,72%	1.552	1,59%	1.441	1,50%
Gaztelania	92.274	98,34%	92.734	97,51%	93.513	95,78%	89.558	92,97%
Biak	1.241	1,32%	1.689	1,78%	2.570	2,63%	5.326	5,53%







Datu esanguratsuak:

- 2001ean – 1.553 barakaldarrek erabiltzen zuten euskara familia esparruan
- 2016an – 6.767 barakaldarrek erabiltzen dute euskara familia esparruan
  - (Barakaldo) - % 7,03
  - (Bilbo) - % 10,36
  - (Bilbo Handia) - % 10,96

Datos remarcables:

- 2001 – 1.553 barakaldeses utilizaban el euskera en el entorno familiar
- 2016an – 6.767 barakaldeses utilizan el euskara en en entorno familiar
  - (Barakaldo) - 7,03%
  - (Bilbo) - 10,36%
  - (Gran Bilbao) - 10,96%

Hezkuntza – matrikulazio datuak
(Barakaldoko Udalaren Hezkuntza arloa)

Educación – Datos de matriculación
(Área de Educación Ayto. de Barakaldo)

MATRIKULAZIO DATUAK 2003 – 2019 (HH + LH + DBH + Batxillergoa)



ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK // GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK





Datu esanguratsuak:

- 2018-2019 ikasturtean, lehendabizikoz D eredua gainerako hezkuntza ereduei gailendu zaie (D - % 46,12 / B - % 45,28 / A - % 8,60).
- 2003-2004 ikasturtean, ikasleen % 32,24 A ereduan zegoen matrikulatuta; 2018-2019 ikasturtean, berriz, ikasleen % 8,60 baino ez daude A ereduan.
- Lanbide Heziketa zikloetan, A eredua da nagusi.

Datos remarcables:

- En el curso 2018-2019, por primera vez, el modelo D supera al resto de modelos educativos (D - 46,12% / B - 45,28% / A - 8,60%)
- En el curso 2003-2004 el 32,24% del alumnado estudiaba en modelo A; en el curso 2018-2019 tan solo un 8,60% opta por el modelo A.
- En los ciclos de Formación Profesional predomina el modelo A.

Helduen euskalduntzea - matrikulazioa
(Barakaldoko Udal Euskaltegia, AEK eta HEOI)

Euskaldunización de adultos - matrícula
(Barakaldoko Udal Euskaltegia, AEK eta HEOI)



Datu esanguratsuak:

- 2018-2019 ikasturtean, Barakaldon 4.103 lagun euskara ikasten animatu dira.
- Barakaldoko euskaltegiek ikasle kopuruari eutsi, edo goranzko joera erakutsi dute.

Datos remarcables:

- En el curso 2018-2019, 4.103 personas se han animado a estudiar euskera en Barakaldo.
- Los euskaltegis del municipio mantienen el número de alumn@s o incluso muestran tendencia al alza.

- **BERBALAGUN** egitasmoan, 220 lagunek hartu dute parte 2019. urtean, goranzko joera nabarmena erakutsita.

- En el proyecto **BERBALAGUN** han participado 220 personas en 2019, mostrando una clara tendencia al alza.



Euskaraldia 2018 (Euskaraldia.eus)



Euskaraldia 2018 (Euskaraldia.eus)





Datu esanguratsuak:

- 16 urtetik gorako Barakaldoko euskaldun edo elebidun hartzaileen % 9,21ek (3.073 lagun) parte hartu zuen Euskaraldia ekimenean.
- Gehiagok hartu zuten AHOBIZI rola (1.766), BELARRIPREST rola baino (1.307)

Datos remarcables:

- Un 9,21% del total de barakaldeses mayores de 16 años euskaldunes o bilingües pasivos (3.073 personas) participaron en la iniciativa Euskaraldia.
- Fueron más lo que adoptaron el rol AHOBIZI (1.766), que el rol BELARRIPREST (1.307)

2.- Balorazio kualitatiboa

2.1. 2019ko lehen seihilekoan, Barakaldoko **Euskararen Aholku Batzordea**k 2015-2019 ESEP planaren ebaluazioa eta balorazioa egin zuen. Hona hemen ondorio nagusiak:

- 2015-2019 ESEP planak honako helburu nagusi hau jaso zuen:

Barakaldoko herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzea, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan.

Batzordekide guztiak ados egon dira ESEP plana baliagarria eta behar-beharrezkoa izan dela jakiteko non gauden eta nora goazen. Barakaldok izan duen lehendabiziko plana izanik, saiakera ona izan da; izan ere, euskarri egokia izan da jardun-lerroak markatzeko. Planaren ondorioz sortu den koordinazioa ere oso baliagarria izan da hausnarketa eta kontzientziazioa bultzatzeko.

Plan guztiek bezalaxe, honek ere bere gabeziak eta hobetu beharrak izan ditu, besteak beste, euskararen sustapenerako funtsezkoak diren hainbat kolektiborengana heltzeko tresna edo baliabide falta. Horrez gain, batzordekide batzuek proposatu dute diseinatuko den hurrengo planean helburu errealistagoak, eskuragarriagoak edo betegarriagoak definitzeko beharra.

ESEP planaren eraginkortasun maila honela baloratu da:

  - 10 / 7,33

- Euskararen Aholku Batzordea (EAB)

Euskararen Aholku Batzordea sortu izana oso positibotzat jo da; izan ere, eragile guztien laguntza eta parte-hartze aktiboa

2.- Valoración cualitativa

2.1. A lo largo del primer semestre de 2019 el **Consejo Asesor del Euskara** realiza una evaluación y valoración del plan ESEP 2015-2019, de la que se extraen las siguientes conclusiones:

- El plan ESEP 2015-2019 recogía el siguiente objetivo primordial:

Incrementar las opciones de uso del euskera en el municipio, en diferentes funciones y espacios; actuar, especialmente, en los ámbitos que repercuten en el uso del euskera en la calle.

Todo el Consejo Asesor ha coincidido en que el plan ESEP ha sido útil y necesario para saber dónde estamos y hacia dónde nos encaminamos. Al tratarse del primer plan de estas características, ha sido un buen comienzo; de hecho ha sido un válido instrumento para marcar las líneas de acción. La coordinación surgida del plan también ha sido importante para impulsar la reflexión y concienciación.

Como todo plan éste también ha tenido sus carencias y ámbitos de mejora; entre otros, la falta de medios o herramientas para llegar a ciertos colectivos estratégicos para el fomento del euskera. También se propone como ámbito de mejora que en próximo plan se definan objetivos más realistas o más accesibles.

La eficacia del plan ESEP se ha valorado con la siguiente puntuación:

  - 10 / 7,33

- Consejo Asesor del Euskera (EAB)

Se valora muy positivamente la creación del Consejo Asesor del Euskera; de hecho la colaboración y participación activa de

nahitaezkoa da udalerrian euskarari bultzada emango badiogu. Alde horretatik, oso ondo baloratu da foro honek sare komunitarioaren eta administrazioaren arteko elkarlana sustatu izana.

Hobetu beharrekoen artean, batzordekide guztiak ados egon dira batzorde hau zabaldu egin behar dela, sinergiak handitu beharra dagoela eta eragile gehiagoren konplizitatea behar dela (kirola, gazteak, merkataritza, kultura…).

Horrez gain, batzordearen funtzioak ere hobeto definitzea proposatu da.

EABren eraginkortasun maila honela baloratu da:

- 10 / 7,27

- <u>Eragileen arteko elkarlana</u>

Aurretik aipatu den moduan, eragileen arteko sinergiak sortu dira, gero eta harreman estuagoa dago eta komunikazioa ere eraginkorra izan da. Oro har, eragile guztien inplikazio eta konpromiso maila oso altua izan da.

Hobetu beharrekoen artean, Euskaraldiaren esperientzia positiboa adibide hartuta, batzordekide batzuek, urtean behin, behintzat, eragile guztien artean, elkarlanean, ekintzaren bat edo proiekturen bat burutzea proposatu dute.

- <u>Euskararen presentzia Barakaldon</u>

Batzordekide guztiak ados agertu dira Barakaldon euskararen presentziak azken urteotan hobera egin duela eta presentzia hori nabarmena dela karteletan, hizkuntza paisaian edo, esate baterako, haurrei zuzendutako ekintzetan. Alabaina, guztiek deitoratzen dute presentzia hau, oraindik, oso urria dela, lan handia dagoela egiteko eta ahulezia handia dagoela indarrak metatzeko. Barakaldon euskara ikasteko

todos los agentes resulta fundamental con objeto de dar un impulso al euskera en nuestro municipio. En este sentido se ha valorado positivamente el fomento de la colaboración entre la administración y el tejido social.

Entre las áreas de mejora, se coincide en la necesidad de ampliar el foro, aumentar las sinergias y buscar la complicidad de nuevos agentes sociales (deporte, juventud, comercio, cultura…).

Igualmente, se propone definir mejor las funciones del Consejo.

La eficacia del Consejo Asesor se ha valorado con la siguiente puntuación:

- 10 / 7,27

- <u>Colaboración entre agentes</u>

Tal como se ha detallado anteriormente, han surgido sinergias entre los diferentes agentes, se ha estrechado la relación y ha predominado una comunicación eficiente. En general, el nivel de compromiso e implicación de los diferentes agentes ha sido muy alto.

Entre los aspectos de mejora, tomando como ejemplo la experiencia positiva de Euskaraldia, se propone la realización de alguna actividad conjunta, al menos una vez al año.

- <u>Presencia del euskera en Barakaldo</u>

Todo el Consejo Asesor coincide en que la presencia del euskera en Barakaldo ha aumentado notablemente en los últimos años, siendo notoria en cartelería, paisaje lingüístico o actividades infantiles. No obstante, se lamenta que esta presencia todavía sea escasa; por lo que se hace evidente todo el trabajo todavía a realizar, así como la dificultad de sumar fuerzas. En Barakaldo la motivación principal para

motibazio “instrumentala” da nagusi, eta horrek zaildu egiten du prozesua.

Esparru askotan, hutsune edo gabezia handiak sumatzen dira, esate baterako, kirol arloan, arlo sozioekonomikoan…

